

#JesusGureanEreBidelagun

KATEKESIA

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Emauseko Ikasleak

Emauseko bidean hasteko...

- Etxeko txoko lasai bat aukeratu, eroso jarri eta kandela piztuko dugu.
- Hasteko, Emauseko ikasleen kontaketa eta komentarioa entzungo dugu. Komentarioa, 'rezandovoy.org' web orrialdetik hartuta dago

(Grabazioak zazpi minutuko iraupena du eta otoitz honekin amaitzen da: "El peregrino de Emaús", Esteban Gumuciorena.)



Ebanjelioa entzuteko sakatu
irudiaren gainean

Lukasen liburutik 24, 13 – 35

Jesus hil ondoren, adiskideak joan egin ziren Jerusalemetik. Horietako bi guztiz atsekabeturik zihoazen Emaus izeneko herrirantz. Gertatutako guztiaz mintzo ziren bidean. Orduan, gizon bat hurbildu zitzairen eta beraiekin hitz egiten hasi zen. Iritsi berria, Jesus zen, baina bi ikasleek ez zuten ezagutu. «Zeri buruz zoazte hizketan?» –galdetu zien–. Agintariak beren adiskidea hil zutela eta oso atsekabetuta zeudela kontatu zioten. Baina itsu ez izateko esan zien berak. «Ez zarete konturatzen antzinako iragarpenetan esaten zela Jainkoaren Semeak asko sufrituko zuela baina ez zutela menderatuko?». Eta bidean jarraitu zuten, elkarrizketan. Herrira iristean, Jesusen adiskideek beraiekin afaltzera gelditzeko esan zioten erromesari. Honek onartu egin zuen. Eta afaltzen hasi baino lehen, ogi zatia hartu, bedeinkazioa egin eta azken afariko hitz berak erabiliz zatitu egin zuen. Orduantxe konturatu ziren Jesus zela. Baina besarkatzeko nahia sartu zitzairenean, ez zuten begien aurrean. Bihotza pozez gainezka zuten eta lasterka bueltatu ziren Jerusalemera, Jesus ikusi zutela eta bizirik zela kontatzera.

Barneratzea ...

- Gustuko duzu bidelagun, adiskide edo seniderik izatea elkarri bitxikeriak kontatzeko eta elkarrekin gertaera eta istorio guztiak gogoratzeko? Seguru baietz, ezta?
- Jesusek bidaia batean, bizitzako bidaian, beste batzuekin eta beste batzuentzat bizitzeko bidaian parte hartzera deitu zituen bere adiskideak.
- Jesusek, bidera atera, eta beraiekin egiten du ibilbidea.
- Bihotza pozez gainezka zuten.
- Jesusek berari buruzko istorioak kontatzen dizkie.



Barneratzea ...

- Bi gizon haiek egundoko poza sentitzen dute Jesusek beren artean jarraitzen duela konturatzean; ogia zatitzean ezagutu zuten.
- Jesus bizirik dago, beraiekin da.
- Gogoratu atsekabeturik sentitu zaren aldiaren bat, nori adoretzen eta kontsolatzen zaitu?
- Begiak irekitzeko, begi barriez begiratzeko eta egiteko dagoen guztiaz jabetzeko diosku
- Jesusek.
- Ekarki burura, adore ematen eta aurrera egiten laguntzen dizuten pare bat gauza.?

Egiteko...

- Kontaketan esan zaiguna barneratu ondoren, ariketa erraz bat egingo dugu Emauseko kontakizunari buruz.
- Koloretako lamina da; kontaketan esaten dena irudikatzen da marrazkien bidez eta Jerusalemetik Emauserainoko bidea irudikatzen du.
- Markatu ibilbide hori errotuladorez; bide batez letrak aurkituko dituzu eta ebanjelioko testuan irakurri eta entzun duguna gogoratuko duzu berriz ere.
- Aurrera, egin zeuk ere bide hori!



Sakatu irudiaren gainean deskargatzeko

Jarduera: Emauserako bidea..

- Kaxa bilgarriren baten kartoi gogor baten gainean kartulina marroia itsatsiko duzu. Emauserako bidea marraztuko duzu, bide horren ibilbidea irudikatuko duten bi lerro uhindurekin.
- Bidearen bi alboetako lerroen gainean harriak marraz ditzakezu



- Errotuladoren, geziak marraztuko dituzu bidean eta gezi bakoitzaren atzean (edo alboan), Jesusekin bat egiteko, Jesusen lagun-mina izateko, egin dizakezun bi gauza edo jarduera idatziko dituzu beste kolore bateko errotuladoren.
- Eta besteei, bidean aurkitzen dituzunei laguntzeko beste pare bat ekintza: zer egin dezaket?
- Egin ondoren, erakutsi aita eta amari eta esan zer idatzi duzun.
- Gorde bidea, hurrengo jardueran ere erabiliko dugu-eta.

Hona hemen bideak egiteko ereduak...



Jainkoagaz berba egiteko

(Otoitza igandetako ebajelioak A urtea haurrentzat
José Real Navarro. Ediciones paulinas)

**KAIXO JESUS, ADISKIDE,
BIZITZAKO IBILBIDEAN,
GAUZAK ONDO NAIZ GAIZKI DOAZENEAN,
BETI ONDOAN ZAITUDALA SENTI DEZADALA.
BIHOTZAREN BEGIAK BETI ZABALIK IZAN NAHI DITUT,
ZU AITORTZEKO ETA ONDOAN SENTITZEKO.
ERNE EGON NAHI DUT,
BIHOTZA SUTAN JARTZEN DIDAN GUZTIAN,
BAKE, INDAR, ADORE, KONFIANTZA,
ITXAROPEN, POZTASUNEZ...
BETETZEN NAUEN GUZTIAN,
ZEURE, JAUN BERPIZTUAREN PRESENTZIA,
SENTITZEKO NEURE BIZITZAKO BIDEAN.**

Kanta entzuteko, sakatu irudiaren gainean

